

B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

Balenciaga gertuago



Balenciaga gertuago

Cristóbal Balenciaga Museoak aukera berezi bat eskaintzen dizue Balenciagaren jaioterria ezagutzeko eta moda-sortzaileari eskainitako museoan haren sorkari bikainak ikusteko eta bildumez gozatzeko. Autobusez egingo duzue Bizkaiko hiriburutik Getariara arteko bidea, eroso-eroso. Helmugara iritsitakoan, bisita gidatua egingo duzue museoan, eta historia nahiz gastronomia oparoak dituen herrixka ospetsuaren ondare aberatsa ezagutuko duzue.

Data

Urriaren 29a

Ordutegia

10:30 Bilbotik Getariara abiatuko da autobusa

12:00 Bisita gidatua Museoan barna

13:15 Bisita gidatua Getarian barna

14:00 Denbora librea

17:00 Getariatik Bilbora itzuliko da autobusa

Esperientziaren barruan hauxe sartzen da

Joan-etorria, autobusez

Cristóbal Balenciaga Museora bisita

Getariako hirigune historikora bisita

Denbora librea

Cristóbal Balenciaga Museora bisita


www.cristobalbalenciagamuseoa.com

Cristóbal Balenciaga Museoa 2011ko ekainaren 7an inauguratu zen eta moda-sortzaile bati oso-osorik eskainitako munduko lehen museo handia da. Haren helburua, Cristóbal Balenciaga diseinatzaile bikainak eta haren lanak sorkuntza artistikoan, oro har, eta bereziki, modaren eta goi-mailako jostuntzaren munduan duten garrantzia ezagutaraztea eta nabarmentzea da.

Museoak Cristóbal Balenciagaren nazioarteko sorkari-bilduma garrantzitsua gordetzen du, bai osatzen

duten piezen kopuru eta kalitateagatik, bai haren hedapen kronologiko handiagatik.

Gidari aditu baten eskutik, parte-hartzaileek *Rachel L. Mellon Collection* erakusketan sakonduko dute. Hubert de Givenchyren zuzendaritzapean antolatutako erakusketak, bilduma honen aukeraketa zaindua aurkezten du, bai eta Balenciagaren goi-mailako jostuntzari buruzko irakurketa berria ere, dama paregabe horren iragazki pertsonalaren bitartez.



Getariako hirigune historikora bisita

www.getariaturismo.eus

Kostaldeko herri txiki polit bat da Getaria, turistikoki oso erakargarria. Probintziako hiriburua den Donostiatik 29 kilometrora dago, urola Kostako eskualde gipuzkoarrean.

Getaria arrantzaleen, itsasgizonen eta nabigatzaile handien sorleku izan da betidanik, lehenengoz munduari bira eman zion Juan Sebastian Elkano kasu. Herriaren ondare historikoa

esanguratsua da eta, era berean, ingurune naturala ikusgarria da, baserri-auzoak Kantaur itsasora begira dauden balkoi paregabeak baitira.

Museotik irtendakoan, Cristóbal Balenciagaren jaioterriko ondare arkitektoniko aberatsa ezagutzeko aukera izango duzue, hirigune historikoko puntu nagusietan barna bisita gidatua eginez.



Zerbitzuaren ezaugarriak

Gidari batek lagunduko du taldea zerbitzu osoan, eta azalpenak 2 hizkuntzatan emango ditu, euskaraz eta gaztelaniaz. Taldeak osatzeko orduan, lehenasunez aukeratu duzuen hizkuntzari begiratuko diogu. Horren arabera, euskaraz, gaztelaniaz edota ele bietan jasoko dituzue azalpenak.

Jasotzeko tokia: Felipe Serrate kaletik abiatuko da autobusa, Hesperia Zubialde Hotelaren aurretik, eta hara itzuliko da egunaren bukaeran. Leku zehatza beheko planoan.



<https://goo.gl/XdkQyW>

Gomendioak

Txango honetan parte hartuko duzuenoi abiatzeko ordua baino gutxienez 15 minutu lehenago irteera-puntuan egon zaitzela eskatzen dizuegu.

Autobusean ezin da ez janaririk ez edaririk eraman eta kontsumitu.

Mugikortasun mugatua duten pertsoneri, mesedez, antolatzaileei jakinarazteko eskatzen zaie, beharrezko neurriak hartzeko.

Adingabeko guztiak arduradun batek lagunduta joan beharko dute.

Getariako jatetxeren batean bazkaltzeko asmoa bazenute, alde zehatza erreserbatzea gomendatzen da.

Erreserbak

Aurretik erreserbatzea eta ordaintzea ezinbestekoa da.

Erreserbak 943 008 840 telefonora deituz edo info@crisobalbalenciagamuseoa.com helbidera idatziz egin behar dira. Cristóbal Balenciaga Museoak mezu elektronikoko bat bidaliko du, aurre-erreserbarekin eta informazio-agiriarekin batera.

Erreserbatzeko, honako datu hauek eman beharko dira::

- Zenbat toki erreserbatu nahi diren.
- Aplikatu beharreko tarifa.
- Azalpenak euskaraz edota gaztelaniaz jaso nahiago dituzuen.
- Harremanetarako telefono bat.
- Helbide elektronikoko bat.
- Kontuan hartu beharreko alderdiak (mugikortasun mugatua, eta abar).

Erreserba ez da osatuko aurretiko ordainketa egin arte. Banku-transferentzia bidez egin behar da, 2095 0611 01 1064089690 kontura.

Erreserbak egiteko epea, bai telefonoz bai posta elektronikoz, irteera bakoitzaren aurreko ostegunean bukatuko da, 15:00etan. Ordaintzeko epea aurreko ostiralean bukatuko da, 15:00etan. Ordainketa finkatutako epean egiten ez bada, erreserbak baliogabetutzat joko dira.

Izena ematen duten pertsonak gidariarekin harremanetan jarri ahal izango dute, 688 682 011 telefonoaren bidez. Zenbaki hori bisitaren eguneko goizeko 09:00etik egongo da martxan. Erabiltzaileen zalantzei eta argibide-eskaerei erantzuteko erabiliko da telefonoa. Telefono zenbaki hori zerbitzua bukatu bezain laster desaktibatuko da. Zenbakia zerbitzuz kanpo dagoen bitartean, bezeroek Cristóbal Balenciaga Museoarekin harremanetan jartzeko aukera izango dute, edozein informazio edo argibide eskatzeko, aurretik adierazitako telefonoaren eta posta elektronikokoaren bitartez.

Izena ematen duten pertsonak garaiz iritsi beharko dute adierazitako tokira. Topaketaren lekura garaiz iristen ez badira, bisitan parte hartzeko eskubidea gal dezakete.

Prezioak

Pertsona bakoitzeko tarifa orokorra	25 €
Prezio murriztua*	22 €

* 18 urtetik beherakoek, 65 urtetik gorakoek, ikasleek, langabeek, desgaitasunen bat duten pertsonak, Cristóbal Balenciaga Museoaren lagunek.

Ordaintzeko modua

Banku-transferentzia bidez egin behar da, 2095 0611 01 1064089690 kontura.

Ez da onartuko bisitaren ondoren ordaintzea. Ordainketa behar bezala egiten ez bada, bisitan parte hartzeko eskubidea gal daiteke.

Ez dira ez txekeak ez bestelako ordainketa-moduak onartuko.

Edozein arrazoi dela medio, bidaia bertan behera utziko balitz, Cristóbal Balenciaga Museoak erreserbari dagozkion zenbatekoak itzuliko ditu, banku-transferentzia bidez.

Baliogabetzea

Izena ematen duten pertsonak beren erreserbak baliogabetzeko aukera izango dute. Horretarako, Cristóbal Balenciaga Museoarekin harremanetan jarri beharko dute, 943 008 840 telefonora deituz edo info@crislobalenciagamuseoa.com helbidera idatziz. Baliogabetze hori forma eta epe egokian eginez gero, ordaindu duten guztia berreskuratuko dute izena eman dutenek.

Mesedez, ahalik eta lasterren eman bisita baliogabetzeko asmoaren berri, itxaron-zerrendan dauden pertsoneri garaiz abisatu eta toki libreak behar adina denborarekin bete ahal izateko.

Erreserbaren ziurtagirian adierazitako tokian, egunean eta orduan agertu ezean, bisita baino gutxienez 24 ordu lehenago erreserba ezeztatzeko asmoa jakinarazi ez bada, ordaindutako zenbatekoa galduko da.

Bertan behera uztea

Zerbitzua bertan behera utzi ahal izango da, gutxienez parte-hartzaile kopurua osatzen ez bada. Behar bezala formalizatutako 20 aurre-erreserba behar dira, gutxienez. Irteera bakoitzaren aurreko ostiralean, 15:00etan, gutxienezko kopurua osatu ez bada, erreserba egin duten pertsoneri bertan behera utziko dela jakinaraziko zaie eta jasotako zenbatekoak itzuliko zaizkie.

B

CRISTÓBAL **BALENCIAGA** MUSEOA

Aldamar Parkea 6
20808 Getaria - Gipuzkoa - España
T 943 008 840
info@crislobalbalenciagamuseoa.com
www.crislobalbalenciagamuseoa.com

